

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Abenduak 28, 89. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




# Urte Berri On!

# IR

## RICOH

### TELEFAX-KOPIAGAILUAK

Avendaño 52 etxabehea, Tfnoa: 945 - 24 22 04. Fax: 24 64 97, 01008 GASTEIZ



Antolatzaileak: ARRASATEKO UDALA  
Laguntzaileak: EROSKI Kontsumitsaileen Komitea

**Ordutegia:** Goizez 11etatik 2etara  
Arratsaldez 4etatik 8etara

# ZATOZ!!!

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**

Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**

Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**

Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitakoan, ASA taldea.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:**

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

# Soin-zati eta ehunen aldaketa

**N**oizean behin komunikabideek soin-zati aldaketaren baten albisteak ekartzen digute. Era guztietakoak daitezkeen arren, Barnard hegoafrikar medikuak hildako baten bihotza gaixorik zegoen beste batengan ezarri zuen une historikotik, ugaldu egin dira estilo horretako ebakuntzen argibideak. Bihotzekoak zailtasun aparta darakusen arren, ez da pentsatu behar beste soin-zatietakoek erreztasunik eskaintzen dutenik.

Oihane iruñarra dugu egun hauetan protagonista. Dela zenbait hilabete Remigio Mendiburu izan genuen eta lehenago, denborak euren izenak ahazterazi dizkigun beste asko. Batzuek gure artean darraite; besteak, zoritxarrez, ez ziren gai izan aldaketak eskatzen zuen indarra eragiteko. Den-denek, ordea, apustu egin zuten bizitzaren alde, aurreritzi moral eta sasi erligioso guztien gaitetik.

XXI gn mendeko medikuntzak urrats handia eman ahal izango du soin-zati eta ehunen aldaketa arloan, bai hartzaile eta baita emaileen aldetik ere. Nazioarteko lankidetzak ezinbestekoa izango da, ebakuntza konplikatu horiek behin eta betiko poeta eta zientifikoen amets bat besterik izan ez daitezten. Mundu

osoko ikerleek bat egin beharko dute, oraindik erren xamar dakusakegun medikuntzaren alderdi hori normaltzeko. Informatikak lehen lerroko protagonismoa izan du, balizko emale eta hartzaile guztien nolakotasunak klasifikatzeko. Odol taldea, izakera, genotipoa, fenotipoa... hau da, emale bakoitzari dagokion hartzailea zein den instant batez ezagutzeko argibide-bilduma ongi antolatuta egon beharko da.

Gorputz-ataletako aldaketa zerbitzu erraldoi horrek, zalantzarik gabe, gordailu egoki baten beharra izango du, denborarik laburrenean edozein tokitara erabateko garantiaz heltzeko. Ez dira emango gure egunotan pairatzen diren akats eta urritasunak.

Inork, lerro hauetara iritsi bada, zientifikoziozkoak ez direla nire gai esango du, agian. Hori horrela daitekeen arren, aurreko hausnarketa apala egiazkotzat jotzen dut nire ezjakintasunetik. Izan ere, ene eritiziz, gizadiak aurrean duen erronkarik idekientetako ez bait da besteen kalte edo zoritxarra, alderantzizkoa baizik. Eta gizaki guztien ongi izatean datza mundu honek duen irtenbide bakarra.

*Josemari Velez de Mendizabal*




**Ileapaindegi mistoa**

Erguin 15 etxebehea,  
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko armairuak**  
**Lan egiteko aukliak**



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

**Liburu eta oparidenda**

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**Zunbeltz**

Simon Arrieta Enparantza 2,  
BERGARA

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

**BERANGO**

**Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atea**

Legarreko pabiloi Industriala  
(behea) Tfno: 79 01 92



**77 08 15**

**Tapia eta Leturia**

Tapia eta Leturia trikitilariak, abenduaren 16an, arratsaldeko 7etan, Arrasateko herriko plazako kioskoan ez zuten trikitixa emanaldian ihardun nahi izan eta horregatik Santamasak Batzordeak honako hau adierazi nahi du:

1- Badakigu, ondo gainera, herriko plazan dagoen kioskoa ez dela lekurik egokiena horrelako saioak egiteko, baina oraindik ere, horretarako herriko erdialdean daukagun leku bakarra da.

2- Bertan behera geratu zen emanaldia txukunago jarri asmoz, kioskoari udal taulatua gehitu zitzaion.

3- Kasualitatea izango da, baina Tapia eta Leturiak egun berean Zumarragako III. Trikitixa jaialdian ihardun behar zuten eta Arrasaten aurrikusitako emanaldiaren orduan, 7etatik aurrera, Zumarragako emanaldiarekin batera zetorrela.

Dokumentu grafikoak daukazkagu Tapia eta Leturiak 1990eko abenduaren 16an, arratsaldeko 7.30etan, Zumarragako kiroldegiko emanaldian ihardun zutela frogatzeko.

*Santamasak Batzordea*

**Tapia eta Leturia Arrasateari**

Abenduaren 16an Arrasateko herrian eman beharreko kontzertua dela eta, Guk, Tapia eta Leturiak gure ikuspegia azaldu nahi genuke, zergatik suspenditu zen kontzertu hura adieraziz.

Egun horretarako, aukeran jarri genien antolatzaileei erromeria bat, Leturia eta biok ematen ditugun horietakoa, hots, trikitixa eta panderoz osatua edota kontzertu bat talde guztiarekin, gure azken diskaren presentazio gisa. Azkenekoa aukeratu zuten. Jakinararen gainean zeuden ere, guk egun berean 6etatik 6.30etara Zumarragan jaialdi batean jo behar genuela eta ez zen inongo eragozpenik egon alde horretatik, guk 7 - 7.30etan emango bait genien hasiera Arrasateko kontzertuari. Honela, gure teknikoak goizeko 11.30etan gelditu ziren antolatzaileekin eta ez zen inor azaldu eguerdiko 1ak arte. Teknikoek eguerdian hots egin ziguten, esanaz beraiek ez zirela ausartzen han montatzen eta bertan egongo zirela gure zain erabaki bat

hartzeko.

Honela zegoen Arrasateko plaza ni iritsi nintzenez: Eliza azpian kiosko antzeko bat zegoen, baina denok jakingo duzuen lez, urinario gisa ere funtzionatzen du toki honek eta plataforma guziaz pisaz estalia zegoen... Gero, kanpoan jarria zuten beste tablada txiki bat kioskoa handitu asmoz. Baina ezin genituen biak batera erabili, altura ezberdinekoak zirelako eta ezin zen batzuk barruan eta besteak kanpoan. Pisa arazoa ez zen gauzarik txarrena, zerrautsa bota zuten beranduago eta eskobatzeko prest zeudela esan ziguten. Plataforma, harri losaz egina dago eta horren gainean ezin da batera bat montatu ez eta amplifikadore eta monitorea kolokan jarri. Honela zegoen egoera. Beraz, hizketan hasi ginen Jon Garai eta "Txispas", bertara azaldu ziren arduradunekin.

Soluzioa bilatu behar zitzaion arazoiari eta guk eskeini genizkienak hauek ziren: 1) kontzertua atzeratu. 2) kontzertua zinera eraman. 3) Tabladu txikia bi metro handitu zabalean. 4) Elizaren kioskoko zorua estal zezatela egurrez.

Kontzertua atzeratzea inposiblea omen zen. Zinera ere ezin zen eraman, propaganda egin zegoelako (nik askotan ezagutu dut kontzertua tokiz aldatzen eguraldiagatik edo beste arazo batengatik). Tabladua ezin zen handitu brigadakoek jai zutelako. Barrukaldea ere ezin zen egurrez estali ez zeukatelako egurrik. Guk, egoera horretan esan genien ezin genuela jo eta beste azken aukera bat ere eskeini genien: Leturia eta biok bakarrik jotea. Hori ere ez zuten onartu.

Zumarragako jaialdira ordubete beranduago iritsi ginen Arrasaten gertatutakoagatik. Beraz, Zumarragan lehenengoak jo behar genuen, baina berandu iritsi ginelako azkenekoa izan ginen. Bukatzerako 8ak izango ziren eta tabladutik jaitsi bezain pronto eta jende guziaz guri begira zegoelarik, berebiziko bronka bota zigun "Txispas"ek, esanaz, Arrasateko herriak jakingo zuela zergatik bere herrian ez genuen jo, Zumarragan jotzea atseginago zitzaigula esanez bezala. Honek asko mindu gintuen eta idaztea erabaki genuen. Okerrena da ez genuela lortu konbentzitzea toki hartan ez daitekeela kontzerturik eskeini, ez behintzat egoera horretan. Ez diot opa hasi berri den talde txikiari ere.


*Tapia eta Leturia*

**Urte Berri On!**


# Zein izan da sekula egin dizuten inuzentadarik politena?



**Mila Ipiña**  
(Telefonista)  
Ez dakit. Ez didate inoiz ere egin.



**Gregorio Garai**  
(Langilea)  
Neuri ez dit sekula inork ezer egin, eh? Holako gauzarik ez didate sekula egin.




**Aitor Gaztañaga**  
(Langabetua)  
Ez dakit, ez zait akordatzen. Bada, monigotea bizkarrean jartzea, edo...



**Anuska Elortza**  
(Ikaslea)  
Niri? Bada, telefonotik deitu eta ez dakit zein politiko dela esan. Hurrengo egunean gezurra zela esan.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

**ARRASATE - ESKORATZA**

## Memesa

**79 42 22**

## KOPIOTXOA

*Fotokopiak  
Planu-Erreproduzioak  
Enkuadernazioak*

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82  
ARRASATE

## NAROKI

**901 MAILAKO  
BITXITEGIA**



**ERLOJUTEGIA**

Erdiko Kale, 23. Tel.- 792047 ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	79 97 22
.....	79 97 33
.....	79 97 44
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTAINGOAK**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZAINZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**


Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------



**28 OSTIRALA:**

• • •

- Zinea: Alai. "Presunto inocente", 7 eta 9.30etan.
- Novedades. "Presunto inocente", 10.30etan.
- Herriko plazan, txokolate eta txurroen degustazioa Udalaren kontura, gauerdiko 12etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

**29 LARUNBATA**

• • •

- Zinea: Alai. "Presunto inocente", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Cuanto más mejor", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Gaztelu erraldoi eta jolasak Sebero Altube plazan, goizeko 11etatik aurrera.
- Jesus Guridi Musika Eskolako ikasleen Orkestra eta Goikobalu abesbatzaren kontzertua, Juan Bataiatzailearen elizan, arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

**30 IGANDEA**

• • •

- Zinea: Alai. "Presunto inocente", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Presunto inocente", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

**31 ASTELEHENA**

• • •

- Zinea: Alai. "Presunto inocente", 5etan.
- Novedades. "Presunto inocente", 5etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz, Maala.

**1 ASTEARTEA**

• • •

- Zinea: Alai. "Regreso al futuro III", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades. "Yo soy esa", 5,

- 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

**2 ASTEAZKENA**

• • •

- Zinea: Alai. "Regreso al futuro III", 7 eta 9.30etan.
- Txikilandia, jolas parkearen inaugurazioa kiroldegian, goizeko 11etan. Sarrera, 200 pezeta.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

**3 OSTEGUNA**

• • •

- Zinea: Alai. "Regreso al futuro III", 7 eta 9.30etan.
- Txikilandian, Rafa Aldasoro magoaren ekitaldia, arratsaldeko 6etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua, Santa Marina.

**Kirol Agenda**

**FUTBOLA**

• • •

- Atxabalpe ondoan, larunbatean arratsaldeko 3.30etatik aurrera, San Andres eta Ariznabarra taldeen arteko futbol partidua.

**FUTBITOA**

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne, 30 partidu ostiraletik igandera bitartean, Zaldibarko frontoian, Santa Teresa ikastetxean, eta Musakolako kiroldegian.



3 urteik 15 urte bitarteko ume eta gazteentzat antolatuta da

## Umeen ordua: Txikilandia

### Urtarrilaren 2tik 5era Kiroldegan

Aurten bigarrenkoz, Txikilandia Umeen Gabonetako Jolas Parkea izango da Kiroldegan urtarrilaren 2tik 5era bitartean. Bi milioi eta zazpiehun mila pezetako gastuak eta milioiko diru sarrera prebisioarekin, antolatzen du Udalak, aurreko urtekoak izan zuen arrakasta ikusirik.

Iazkoan, 1.500 ume inguru hurbildu zen Kiroldegan eurentzat prestaturiko dibertsioetara, eta arrakasta horrek bultzatu zituen batez ere urteroko izaera ematera. Aurtengorako tresneria guztia Iruñeko etxe bati alokatu zaio, eta funtzionamendurako etorriko diren teknikoez gain, hamabost monitore kontratatu ditu Udalak AEDren bidez, Txikilandiara joaten diren umeekin ibil daitezten.

Adinari dagokionez, hiru urtetik hasi eta 15-16 urte bitarteko ume eta gazte txoei begira dago pentsatuta jolas parkea eta ordutegia, berriz, 11etatik 2etara

izango da goizez, eta 4etatik 8etara arratsaldez. Sarrera, berriz, 200 pta kostako da, eta egunero joan nahi izanez gero, 500 ptako abonua hartzeko modua dute umeek. Trenean ibiltzea berriz, 50 ptaren truke izango da. Puzgarri erraldoiak, ohe elastikoak, zezen mekanikoa, rokodromoa, ping-pongian egiteko tokiak, mini golfa eta diana izango dira umeen esku. Horrekin batera, txapelak, pajaritak, txotxongiloak egin eta aurpegia margotzeko tailerrak izango dira, uretako jolasak, globo aerostatikoa, skate pista eta Txikilandiako *Txutxu* trenarekin batera.

Egunean egunean antolatuko diren ekitaldien artean, berriz, Rafa Aldasoro magoa izango da urtarrilarern 3an arratsaldeko 6etan, eta hurrengo egunean *Tunantes del Norte* antzerki taldea ordu berean. Amaiera bezala, opari zozketa ere egingo da urtarrilaren 5ean, eguerdiko 1etan.

## Usteak uste

**1** 990ak eman ditu honez gero bere onenak. Urtekariak abendurako eginda egoten direnez, gero urtekari horietan agertuko ez diren gertakizun inportanteak gertatzea behin baino gehiagotan suertatu da eta aurtengoak ez du zertan salbuespena izan.

1991 ari 92 famatuaren atarikoak izatea fortunatu zaio eta, aurretiaz behintzat hura bezain distiratsua ez izan arren, ekarriko digu ekartzeorik. Bateuk Gasteizko Jaurlaritzaren eraketa, inportantea oso, zeren hango koalizioak gerora Diputazioetan eta baita Udaletan egingo direnak ere baldintza bait ditzake. Pertsiar golkoan gertatzen denak izango du eraginik gure sakeletan, eta zer esanik ez, komunikabideetan.

Eragin handiena, hurbilen izango ditugulako, maiatzean egingo diren Udal Hauteskundeek izango dute. Azken bozketak argi utzi zuenez, euskal panorama politikoa ez dago finkatuta oraindik eta botu joerak nora egiten duen, soluzio batzuk bultzatuko ditu, besteen kaltetan.

Beti bezala, ez dugu aspertzeko astirik izango. Datorrena datorrela, ongi etorria izan dadila, eta urte ona bezain oparoa izan dakigula. Urte Berri On!

*Joxe Aranzabal*

## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PAPER PINTATUAK - PINTURAK

## A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



315 milioitako gastuak aurriztatu dira

## S. F. Xabier ikastola osasuntsu

*Iaz espero baino defizit txikiagoa izan zuen*

Gazteluondon San Frantzisko Xabier Ikastolako batzar nagusitik atera zen ondorio zuzenena, ikastolaren egoera osasuntsua eta dinamikoa dela izan zen. Aurreko adierazpena Jesus Garmendiak egin zuen, joan den urteari zegokion txosten ekonomiko ikusi ondoren. Txosten ekonomiko horren arabera, San Frantzisko Xabier Ikastolak 3.250.000 pezetako defizita izan zuen, aurrez espero zena baino askoz ere txikiagoa. Aurtengo urteari begira 315 milioitako gastuak aurriztatu ziren, eta 3.500.000 pezetako defizita espero zen, iazkoaren antzerakoa beraz.

Dena den, arazoak ere badira eta aipatuak izan ziren: demografi jaitsiera, erreformaren aplikazioa, eta eskaintzen den zerbitzuaren eta kobratzen den kuotaren artean gorde beharreko oreka. Kuotei dagokienez, igokada izango dutela esatekoa da, 700 pezetatik 1.200 pezetara pasatuko bait dira.

Ikastolako Batzorde Zuzendariaren erdia aldatzeko pertsona berriak ere izendatu ziren. Elisabet Garmendia, Margarita Gorrotxategi, Igone Larrañaga, Rufina Olasagasti, Xabier Kintana, eta Jesus Maria Artze izan ziren hautatuak.



## Hileko Agenda

Gabon egunak direla eta, bestetan baino meheago doan ale honetan, aurrerantzean hilean behin argitaratuko dugun sail berria dakarkizuegu: hileroko egutegia. Bertan Arrasaten hil horretan izango diren kultur eta kirol ekintzen berri emango da. Irakurleak horrela nahi izanez gero, aldizkaritik atera eta etxe edo bulegoko horman jar dezake, beti ere aisialdia hobeto antolatzeko.

Zerbitzu berri hau ahalik eta osoena izan dadin, dei egiten diegu antolatzaile guztiei, hemendik aurrera antolatzen dituzten ekintza guztien berri azkarra eman diezagutela, egutegian garaiz sartzeko moduan.

ARRASATE Hileko agenda: URTARRILA ARRASATE						
ASTURNAZKA	ASTARTZA	ASTURAZKERA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDA
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

## SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka  
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

## PEÑACOBA Auto-Eskola


Zarugalde 46,  
79 14 01

ARRASATE

## ORTZI erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA





# SASKI NASKI

Lehiaketa

1990


## OKENDO KIROLAK



Zatoz gurera  ikustera.  
Banatzaile ofiziala

## Jose Aranzabal


TB, HI-FI, BIDEOKAMARAK



### ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

- ▲ Txaro Balanzategi
- ▲ Amaia Umeretz
- ▲ Josune Ribera

## J. URIARTE



Ze santuren eguna da abenduaren 31n?

ASTE HONETAKO IRABAZLEAK

SASKI NASKI ZOZKETAKo opari handiaren zozketa, urtarrilaren 30ean egingo da.

## ERANTZUNA:

Izena: ..... Helbidea ..... Tfnoa: .....




**Arrasate Presseko Urtekaria** kalean dago dagoeneko. Santamas egunean ekinaldi ederra egin zuen argazkiko gazte taldeak, eta saldu ere dexente saldu zuten, antza, Portaloian eta azokarako sarreran jarrita. Interesa izan eta oraindik ere erosi ez duenarentzat, herriko kioskoetan daude salgai.



Monterron kultur etxeko ganbarak hartu zuen joan den ostegunean **Iñaki Mendigurenen Hartzak badu bihotzik** liburuaren aurkezpena. **Nekane San Migel** abokatua eta Elkar argitaletxeko **Xabier Mendiguren** izan ziren eritzia eman eta galderak egiten lehenak. Oparirik ere jaso zuen Iñakik, AEDko **Martin** eta **Bittorik** pergamino dotorean idatzitako bertsoa eta lore sorta bikaina eman zizkioten eta.

Genero eder eskorik erakutsi zuen **Jose Luis Madina** aramaioarrak Santamasetako azokan! Fruituen sailean lehen saria eskuratu zuen, eta pozik ageri zen, txukun-txukun ipinitako saltokitik fruiturik onenak saltzen. Lau kiwi mota, 19 sagar ezberdin ... eta etxean 42 ei ditu. Kartel dotore askoa ere ageri zen atzean, Santamasak 90 jarrita.



Umeen dibertigarri, **pottoka** bat ibili zen Zerrajera aurrean, baserritarren feriarren inguruan, txandan-txandan ume pila galanta pasiatu zituen. Batek sokatik eraman eta beste bi gainean, bapo pasatu zuten neska-mutikoek!



**VICTOR RUIZ MELGAR**


Pintorea  
Erdiko kale 32, 4.  
79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)  
ARRASATE

**MARTINEZ**  
**aroztegia**  
Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



**🐷** Soinua eta musika ez ziren falta izan Santamas goizean Arrasateko kaleetan. Laja eta Urtainen kalez kaleko ekinaldiaz gain, **Trikitolari Eskolako ikasleek** ere erakutsi zuten zekitena. Hurrengorako herritarrekin ere egin daiteke trikitilari festa aparta. Pieza bana jota ere, saio ederra betetzeko lain!



**🐷** Herri kiroltako aizkolarien txandan Olasagasti atera zen irabazle, erraz gainera. Bolo harriarekin rekord berria ezartzera atera zen **Gibitegi**, baina iaizkoa berdindu besterik ezin izan zuen egin, jasoaldi bat ez bait zioten ontzat eman.



**🐷** *Sei mila sei*hun eta *hogeitaameretzi*, kantatu zuten laugarren sariarekin San Ildefonsoko neska mutikoeak. Erdiko kaleko loteria saltzaileenean festa izan zen Santamas egunean. 25 milioi egokitu ziren Arrasatera, eta batek baino gehiagok majo pasatuko zituen Gabonak. Zorionak zortedunei!



**🐷** Santamasetan ohizkoa den bezala, **AED**ren urteroko ipuin, komiki, poesia, bertso-paper eta bideo **lehiaketan** eta *Jokin Zaitegi* itzulpen **lehiaketaren** sari banaketa izan zen ostiralean Monterronen. Zorionak irabazle guztiei eta animoak besteei.

**MIKEL LASA**  
ASEGURO ARTEKARITZA

**ASEGURO ARTEKARIA**  
Zure esanetara gauzkaku!

Maialako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE



# Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA  
LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)




## SAN ANDRES AUTOAK

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98  
ARRASATE



Mendi, eskalada  
eta kirol gaiak

ABENTURARAKO KATU OINAK




Beatriz Jimenez,  
Euskadiko Txapelduna

## ***katu oinak***

Loramendi 8, Tfnoa: 77 02 69 ARETXABALETA

# DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzateke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzti dorete eta, aldi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-lamuzko azalak, 24 kilateleko urez sulan eginak estanpazioekin.
- Landare-hariz positako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan eginia, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.



**OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94-445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)**

## Euskara ikasteko erabili beharreko obra

### LASTER PREZIO IGOERA

**Ernesto Amaia Argitaletxea**  
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO  
 Tfnokak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

**ASTELEHENA**

**ASTEARTEA**

**ASTEAZKENA**

**OSTEGUNA**

**1**

• URTE BERRI ON!



**7**

- Berriz eskolara.
- Fagor: Batzar Nagusia.
- Goardiako farmazia: S. Andres.

**8**

- Ikastaroa: "Pertsonaren garapen psikologikoa". 15.00. AEDn.
- Erakusketa: Garibai Plaza urbanizatzeko Lehiaketaren amaiera.
- Goardiako farmazia: Portaloia.

**2**

- Txikilandia: Kiroldegian.
- Goardiako farmazia: Portaloia.

**2**

- Txikilandia: Kiroldegian.
- Goardiako farmazia: Portaloia.

**14**

- Goardiako farmazia: Portaloia.

**15**

- Ikastaroa: "Pertsonaren garapen psikologikoa". 15.00. AEDn.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

**16**

- Goardiako farmazia: Musakola.

**16**

- Hitzaldia: "Lanak". 16. AEDn.
- Goardiako farmazia: Ergui.

**21**

- Goardiako farmazia: Iturriotz.

**22**

- Ikastaroa: "Pertsonaren garapen psikologikoa". 15.00. AEDn.
- Goardiako farmazia: Musakola.

**23**

- Goardiako farmazia: Erguin.

**23**

- Hitzaldia: "Dona". 15. AEDn.
- Goardiako farmazia: S. Ma.

**28**

- Goardiako farmazia: Musakola

**29**

- Ikastaroa: "Pertsonaren garapen psikologikoa". 15.00. AEDn.
- Goardiako farmazia: Erguin.

**30**

- Goardiako farmazia: S. Marina.

**30**

- Hitzaldia: "Dona". 15. AEDn.
- Goardiako farmazia: Maala

# URTARRILA

## ARRASATE PRESS

TEUNA

OSTIRALA

LARUNBATA

IGANDEA

3




- Txikilandia: Kiroldegian.
- Zinea: "Terroríficamente muertos" Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: Erguin.

4

- Txikilandia: Opari zozketa. Kiroldegian.
- Errege kabalgata. 18.00.
- Saskibaloia: Centraljet Euskal Air-Amigos del Baloncesto. 18.00.
- Folk Jaialdia. Oyster Band eta Celtas Cortos. Kiroldegian. 22.30.
- Goardiako farmazia: S. Marina.

5



- Gabonetako Saskibaloia Txapelketaren finala. Kiroldegian. 12.00
- AUKEA Sariak. Kiroldegian. 13.00.
- Futbola: Mondra-Zarautz.
- Goardiako farmazia: Maala.

6

10



- Zinea: "El día de los muertos". Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: S. Marina.

11

- Antzerkia: Traspasos tailerra "lendo". Amaia. 22.30.
- Eskubaloia: Arrasate-Salesianos. 18.30.
- Goardiako farmazia: Maala.

12



- Futbola: Mondra-Bermio. 15.30.
- Goardiako farmazia: S. Andres.


13

17



- Zinea: "Paper House". Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: Maala.

18



- Saskibaloia: Centraljet Euskal Air-Loiola Indautxu. 18.00.
- Goardiako farmazia: S. Andres.

19

- Goardiako farmazia: Portaloia


20

24



- Zinea: "Donde te escondes hermano". Amaia. 22.30.
- Goardiako farmazia: S. Andres.

25



- Pilota: Arrasate-Beti Poz. 10.30.
- Saskibaloia: Arrasate-Bidebieta. 18.30.
- Goardiako farmazia: Portaloia.

26



- Gelma: Batzar Orokorra.
- Futbola: Mondra-Mungia. 15.45.
- Goardiako farmazia: Iturriotz.

27

31



# GOROSTI

Jatetxea

GERARDO ALUTID - ISABEL CANO

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE


# EYA

## ELEKTROTRESNAK

Iturriotz 21, tfnoa: 79 03 84  
Erdiko kale 27, tfnoa: 79 13 79

## Felipe Arrizabalaga

aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

# Kabia

*Altzariak*

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta  
Ferrerías 23.  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



## BELUN taberna


Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

# Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
Arrasate



## ETXE- -AUNDI

Ostiraletan  
d a s t a t u  
g u r e  
m e n u  
b e r e z i a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI



## MIKEL

Eskaiola, pintura eta  
kortxoazko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
ARRASATE



# EZKONTZAK

Laso Arregi



Kontxi Maidagan eta Juan Manuel Ubiergoren ezkontza Dorletako elizan izan zen. New York eta Mexiko ezagutzera joan ziren ondorengo egunetan. Zorionak bioi!

Laso Arregi



Arrozak estaltzen dituen horiek Ane Markina eta Juan Manuel Pando de Canto dira, eta apirilaren 7an ezkondu zirenez, atzerapenez bada ere, zoriondu egin nahi genituzke.

## ezkontzak



Laso Arregi

Argazkiko bikotea J. Antonio Errasti eta Mari Karmen Carmonak osatzen dute. Uztailaren 21ean egin zuten ezkontza, Arantzazuko Santutegian.

Pentsa dezakezun jostailu erakusketa handiena daukagu zure zain.

Jostailu merkeenak hemen aurkituko dituzu

**Eco Gasteiz** -en

BAZKALORDUAN EZ DUGU IXTEN

**Cercas bajas 34, GASTEIZ**

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria


Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**BRANKA**

**jatetxea**

Eguneko menua eta karta

## ezkontzak



Urriaren 6an, **Rafa Carriet** eta **Garbiñe Nuñez** ezkondu ziren Santa Agedan, eta egun gutxiren buruan Mexikon ziren, ezta bidaiatzeko gozaten.

Epelde



Brasilera joan ziren **Xabier Armendariz** eta **Filo Martinez** ere. Bikote horren ezkontza urriaren 6an izan zen. Bada, halakoetan esaten dena. Zorionsu izan daitezela!

Epelde



Dorletako Santutegia izan zen **Iñaki Alzaburu** eta **Nieves Galdosen** ezkontzaren lekuko, maiatzaren 19an. Ez dakigu bidaiarik egin zuten eta nora joan ziren, baina bihoazkie zorionik beroenak!

Epelde



**Ana Villar** eta **Luis Gonzalez** ere irailean ezkondu ziren, 8an hain zuzen ere. Dorletako Santutegian bildu ziren familiareteko eta lagunekin, eta ezkontza-bidaia Thailandiara egin zuten.

Epelde

**URONDO**  
elektrizitatea



- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

**VE ECUADOR**

Kontzesiño 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**BASABE JATETXEA**

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETAK

**L**ARRINGAN

auto gidarien eskola  
KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Epelde

**Jabi Gorroñogoitia eta Rosa Beitia** arrasatearrak azaroaren 27an ezkondu ziren. Ondorengo bidaia Estatu Batuetara egitea pentsatu, eta baita egin ere!



Epelde

**Iñigo Oñederra eta Itsaso Larrañaga** Gantzagako elizan ezkondu ziren uztailaren 28an. Denbora dexente pasa da egun ahaztezin hartatik, baina gure zorionik beroenak. A! bidaia Canarias aldera egin zutela ere esan digute.



Epelde

Arantzazuko Santutegian, eta irailaren 29an **Juan Carlos Martin** eta **Miren Armendia** ezkondu ziren, besteak beste. Ondoren Mexikon izan ziren. Zorionak!



Lasto argazkia

Abenduaren 8an Arantzazuko Santutegian, **Luis Zabala "Gigi"** eta **Edurne Balanzategi** arrasatearrak ezkondu ziren. Bidaian Singapur-eko bazterrak bisitatu zituzten. Zorionak!

# ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Previassa, Aslsa, Capisa)  
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxebehea, Tfnoa: 79 20 18  
ARRASATE

I  
R  
A  
T  
I

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**



Laso Arregi

Juan Carlos Alvarez eta Agustina Sanchez ere uztailean ezkondu ziren, hilak 20 zituela, San Isidro elizan. Palma de Mallorca aukeratu zuten ondorengo bidaia egiteko. Zorionak!



Epelde

Andoni Mugika durangarra eta Edurne Balzategi ere azaroaren 20an ezkondu ziren Goiuriako elizan. Portugal aukeratu zuten ondorengo bidaia egiteko. Zorionak, pareja!



Epelde

Bedoñako elizan, eta azaroaren 27an ezkondu ziren Juan Cruz Aranburu eta Itziar Unzueta. Zorionik beroenak bi hauei ere!

Jabier Balanzategi eta Txaro Gonzalez, irailaren 22an Uribarriko elizan. Bidaia egiteko Brasileko lurralde beroak aukeratu zituzten. Zorte on aurrerantzean!



Epelde




**LORAMENDI**

**KIROLAK**

**ESKIATZEKO JANTZIAK  
14.900 pta.tik hasita.**

**Aukera handia:  
buzuak, anorakak eta  
lumatzak.**




**INTERSPORT**



Golkó pertsiarren arazoa pil-pilean dagoen honetan, denon ahotan ibili den gaia **Marta Sanchez** kantari espainiarrak hango soldaduei egin dien bisita izan da. Baina oraindik handiagoa iritsi da gure belarrietara: **Rosi Catanga** arrasatear ospetsua ere Gabon Zaharreko joatekotan da, soldadu gaisoei animoak eman eta bere erreperrotiotik kantarik ezagunenak abestera. Martak berak dei egin omen zion etxera, mesedea eskatuaz, eta Rosik ezin ezetzik esan. Animo bada, bioi, eta bueltara arte, Rosi!

Asko dira Arrasatetik kanpo bizi eta Arrasate Press astero jasotzen dutenak, eta zorion agur ugari jaso dugu egun hauetan. **Jose Antonio Bengoa** izan da horietako bat. Urte askoan Bartzelonan bizi den arren, astero irakurtzen du Arrasateko berri. Eskerrik asko, Jose Antonio, bidali diguzuen postalarengatik, eta Urte Berri On zuei ere!



Jokin Laspiur, Aitor eta Betirtze Iñurritegi izan ziren joan den asteko Sasaki-naski lehiaketako irabazleak. Aranzabalenera joan ziren sari bila, eta argazkia orduan ateratakoa da.

**BURGALES JATETXEA**


**Jaki goxoak eta giro atsegina**

**Durana 12, Aretxabaleta**


**Monte  
taberna**

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

S. F. XABIER IKASTOLA  
 GERENSUGE SILOBIKOA




- 1- Santamasetan esketatzen den animala.
- 2- Hegasti palmipedo.
- 3- Non bizi gara?
- 4- Zutiko. (Lauki baketean silaba bat.)



Hutsuneak betez berbak sartu.  
 \* Saria piramide luzearentzat!  
 Erantzungak: INUSENTE-PRESS  
 Bababera Kalea, 28

GONBIDAPENA: Oporrak direla eta, gau guerako Uda letxeak zehulako aforia pre-tatu du 14 entetik behera koentzat.

Hori bai, dokoitzaik bere koi-lareta eta esku zopia erama-tea ezin bestekoa izango da. ZATOZTE!!



SOLUZIOAK:  
 1-TXERRIA  
 2-AHATEA. 3-ARRASATEAN. 4-TENTEA.

**Osorik pub**  
 Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

**LORATEGI**  
 taberna  
 Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**77 08 15**


## Zeuri, joan zaren horri

Nun zagoz lagun? amaren etxearen baitan,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? haize zurrunbiloaren baitan nago,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? kalez-kaleko iraganbidean,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? neska-mutilekin, kalean nago,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? mendi hegalean,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? itsas zabalean nago,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? Ainube-itzalean nago,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? liburu azalaren baitan nago,	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? zine aretoko kadiran	begiak zabalik.
Nun zagoz lagun? edonori so nago,	begiak zabalik.
Euskal Herrian nago,	begiak zabalik.

*Do you remember*

# APAI PINTURAK

J. L. Iñarra Pasealekua 18, Etxebehea, Tfnoa: 79 61 56 ARRASATE



# EUSKARA HOBETZEN

Udaletxe, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzako langileak dira. Zerbitzu hobia eskaintzeko ari dira lanean ■ Bere euskara lantzen ari dira ■ Zuk ere lagundu dezakezu, edozein Herri-Erakundetara zatozenean, Euskaraz hitz eginez ■ Denon artean gero eta Herri Erakunde eta Gizarte euskaldunagoak egingo ditugu ■ Zure eguneroko harremanetan eta Herri-Erakundeetan ■



## EGIZU EUSKARAZ

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EZARTZEKO PLANGINTZA

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO



aste ko

**PROGRAMAZIOA**

**31 ASTELEHENA**

Ez dago programaziorik.

**1 ASTEARTEA**

Ez dago programaziorik.

**2 ASTEAZKENA**

14.00 Txikilandia.  
Gabonetako jolasparkeari buruzko programa berezia.

18.30 Teletestua.  
19.30 Bapirulauke, S. Viator ikastolan grabatua.

20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
20.20 Zenbat buru, hainbat aburu, J. M. Velez de Mendizabalek zuzendua.  
Gaia: joan den urtearen balantzea.

Txikilandia (errepikaldia).  
Berriak (errepikaldia).

**3 OSTEGUNA**

11.00 Teletestua  
12.00 Bapirulauke (bezperakoa)  
12.30 Berriak (bezperakoa)  
12.50 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa).  
13.45 Bapirulauke (errepikaldia)  
14.15 Txikilandia

**4 OSTIRALA**

14.00 Txikilandia.  
19.00 Teletestua  
20.00 Berriak, Begofia Garaik aurkeztua.  
20.20 Erretratoa, J. R. Elorzak zuzendua.  
Gonbidatua: Julian Sagasta, Erromako Santa Maria elizako organu jolea.  
20.50 Musikantoi, Mikel, Asier, Pepe eta Patxi egina.  
Berriak (errepikaldia).

**5 LARUNBATA**

11.00 Teletestua.  
12.00 Berriak (bezperakoa).  
12.20 Erretratoa (bezperakoa).  
12.50 Musikantoi (bezperakoa).  
14.00 Txikilandia.



**J**uan Jose Uriarte "Bermi" izan zen

Santamasak 90 programa berezirako dekoratua egin zuena. Ez da lehen aldia *Bermi* horretan ari dela ATBn. Azken hauteskunde gucko platoa eta baita Sanjuanetakoa ere haren laguntzari esker jarri bait ziren. Lagunak okasiotarako izaten omen dira eta Bermi huts egiten ez duten horietakoa da.

**A** TBk programa berezia antolat du datorren asterako. Txikilandiak -Arrasateko Udalak Musakolako Kiroldagian antolatu duen Gabonetako jolas parkea dirauen- lau egunetan, (azteazken, ostegun, ostiral eta larunbatean), ETBK izen bereko programa emango du arratsaldeko 14.00etan, bertan izango diren jolas, ekitaldi eta giroaren berri emanez.



## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Geldo samar ibiliko zara datozen egunetan, bai beharrean bai emozionalki. Barruan gordetzen diharduzun energia nolabait erre beharko zenuke Aries, ondoko bait dakizu gehiegizko lasaitasunak zertara eramaten zaituen.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Zorioneko egongo zara datozen egunetan Leo. Aukera onak intuizioz ikusi ahal izango dituzu eta hautatutakoari probetxurik ateratzen jakingo. Horrelako egoerak ez dira egunoroak izaten, ez zaitetz alperra izan eta ekin.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Azken asteotan izan duzun indarra ahulduz doala somatu duzu. Ez zaitetz arduratu, lasaitasunean ere ederki bizi izaten dela konturatuko bait zara. Bizi izateko egiten dugu lan eta gizaki orok du perezarako eskubidea.



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Edozeri ekiteko prest egongo zara Tauro. Aprobetxa ezazu dudamudatan zeneuzkan ideia horiek martxan jartzeko, ez bait zara energia faltan egongo. Maitasunean maitalerik onena izango zara eta txundituta edukiko duzu laguna.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Ohi ez bezala gogor egingo diezu besteei eta hurrengo baterako ondo etorriko zaie. Bizi bizi egongo zara eta berehala eterako dituzu aurrera normalean denbora luzea eskaintzen diezun eginbeharrak.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Indarez gianeza izango dituzu gorputz fisiko eta mentala. Azkenaldian benetan arduratu eta nahastuta eduki zaituen arazoa beste era batera hartuko duzu eta ez dela hain larria ohartuko. Hala eta guztiz ere, atsedena beharrezkoa izango zaizu.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Ondo dakizu zure bertuterik onena berba egiten jakitea dela. Marteren egoerak ez dio batera onik egiten horri eta kontuz ibili ezean oldarkor hitz egiteko eta besteak iraintzeko arriskuan egongo zara.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Harremanetarako daukazu joera hori alde batera laga beharko zenuke aste batzuetan, ez bait zara besteen beharren barruraino iritsiko eta norbait minduko zenuke ohiko jarrera ezagatik. Zuhurra izan erostekak egiterakoan.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Itelargia transitoan izateak mortasuna eta besteekiko harremana sendotuko dizkizu Acuario. Arazoen arazoitzea nagusitu egingo zaio emozioari eta argi eta garbi azaldutako edozein aldaketari erantzuteko prest egongo zara.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Eginbehar serioak gehiegi pentsatu gabe eta besteetan esaneri jaramonik egin gabe gauzatuko dituzu. Ziurtasunez ari zarenean ondo dago egoskor jokatzea, baina, horrelako erabakien aurrean entzule ona izateak mesede egiten du.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Burruka batean izango dituzu burrua eta burua. Burruka latza izango da gainera eta eskarmentuak erakutsiko dizu nola menderatu behar den. Gaztea bazara ezazu hartu zoritxarra balitz, baizik eta hurrengo baterako onuragarri izango zaizulakoan.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Egonezina izango duzu datozen egunetan, alde batetik bestera ibiliko zara zergatia jakin gabe. Ez da horrela ibiltzeko momenturik egokiena zuretzat, istripuren bat izateko arriskua dagoelako. Ibil zaitetz astiroago, urrunago iritsiko bait zara.



# Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.


Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

# DENDARABA





# MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



## Shuttle-a: Irudiaren erabateko kontrola, urrutitik



# SONY

BANATZAILE OFIZIALA

*Jose Aranzabal*

ITURRIOTZ 15, Tfnoa: 79 15 16  
**ARRASATE**